



3 UDALA

Gizarte Zerbitzuetako laguntzak sustatuz

Urte betean laguntza soziala indartu egin dutela jakinarazi zuten atzo Gorka Lizarraga, Lasarte-Oriako Zerbitzu sozialen saileko arduradunak Villa Mirentxun egindako agerraldian. Laguntza horiek murriztu egin direla esanaz argitaratu diren informazioei erantzuna eman nahi izan zien zinegotziak.

4 ELKARRIZKETA

Erketzen dantza eskolan izena ematea zabalik

Erketz Euskal Dantza taldeak ia 50 urte ditu. Bere iraupenaren arrazoiak bat taldearen esanetan harrobia landu eta ondo zaintzen duela da. Taldea sortu zenetik beti egon da dantzari txiki talde bat. Hala ere, 1991. urtean hasi zen martxan Dantza Eskola. Ikasturte berrirako izena ematea zabalik da.

5 MARATOIA

Benedika mendira 26 igoera egingo dira Maratoian

Euskararen Maratoian zehar Benedika mendira egingo dira irteerak. Aurrekoan Teresategira egin ziren txangoak eta aurten Ostadarreko mendi taldeak Benedika ezezaguna berreskuratu nahi izan du. Lehen txandak buzoia jarriko du mendi tontorrean eta hainbat ezusteko ere izango dira. Honetan parte hartzeko izena eman daiteke www.euskarenmaratoia.com helbidean edo Ttakunetik pasata.

Mugikortasun iraunkorraren festa

Udalak antolatuta bizikleta festa eta jokoek Okendo girotu zuten

Europa osoan mugikortasun iraunkorraren Astea ospatzen dela eta Lasarte-Oriako Udalak ere zenbait ekimen proposatu nahi izan ditu. Astearterako aurre ikusita zegoen bizikleta festa eta martxak atzo egin ziren eguraldi txarra zela eta bertan behera geratu ostean. Honekin batera mugikortasunaren parkea eta Segway zirkuitua egiteko aukera izan zuten haurrek.

Mugikortasun astea garraio publikoa eta garraibide gisa bizikletaren erabilera bultzatzeko baliatu nahi izan du Lasarte-Oriako udalak beste urte batez. Horrela izanda haurrek ederki pasa zuten arratsaldeko lauretatik aurrera Okendon izan zituzten ekintza eta joko ezberdinei esker.

Bizikletek hartu zuten protagonismoa atzo Okendon. Eguraldi ona lagun haur asko gerturatu zen bizikletarekin. Lehenik eta behin herriko bidegorrietan barrena ibilbide bat egiteko aukera izan zuten. Taldeetan abiatu ziren Okendo plazatik begiraleen laguntzarekin hamabost minutuko txangoa egitera. Ondoren, bizikleta utzi gabe Okendon jarritako zirkuitoan parte hartu ahal izan zuten proba ezberdinak burutzen.

Horretaz gain eta bizikleta momentu batez utzita, arrakasta berezia izan zuten Segway gaineko ibilbideek. Honen gainean eta begirale



Okendotik abiatu ziren txirindulariak herriko bidegorrietan barrena txangoa egiteko.

baten argibideak txintxo jarraituz, Askatasunaren parkean ibilbidea egin ahal izan zuten hamar urtetik gorako haur eta gaztetxoek. Hori bai, ilara itxaron behar izan zuten hauen gainean ibili ahal izateko.

Hasieran ekilibrioa lortzea zaila zela zioten bertan lehen ibilbidea egin zuten haurrek, ondoren gustura gidatzen zela azaltzen zieten euren lagunei. Behin eta berriro ibilbidea errepikatzekeo ilara egin zutenak ere izan ziren.

Joko didaktikoak

Aipatutako jokoak nahikoa ez eta bizikleta gainean egiteko jolasak egiteaz gain, oso joko berezietan aritzeko aukera izan zuten ere ONCeri esker.

Erakunde honek ezintasun desberdinen ikuspegia ezagutzeko jolas didaktikoak ekarri



Segway gainean ibili ziren haurrek Askatasunaren parkeetik.

zituena gurera. Horrela begiak estalita, eta itsuen zailtasunak ulertzeko helburuarekin, baloiarekin edota ibilbide bat burutu behar izan zuten lehenengo harrizko zoru baten gainean, plazako zoruaren

gainean ondoren eta belar gainean azkenik makilaren laguntza soilarekin.

Heziketan datza udalaren ustetan bizikletaren erabilera handitzea eta horrelako ekintzak dira horretarako tresnak.

**ELECTRICIDAD
ARREGUI**

- Material elektrikoak
- Argiak
- Etxetresna elektrikoak
- TB/HI-FI
- Instalazio elektrikoak

www.electricidadarregui.com

**Orain
sukaldeko tresneria
salgai!**

Kale Nagusia 39 • LASARTE-ORIA Tel.: 943 361080 • Tel./Faxa: 943 372521

Neure kabuz



Gorka Lasas

Ez beste ezer

Arratseko argi beteak, sukaldetako leihotik sartu, eta bazterrak argitu ditu bertan; baina aspaldian ez bezala argitasun lausoa da, pausatua.

Leihoa ireki ahala hego haize xamurra sartzen da sukaldetako, barneraino, eguzki izpiekin jostatzera.

Behetako parkean ere jolasean ari dira haurrak. Itzal luze, ilunkarak segika dituztela erreparatu gabe, hara eta hona, salto eta korri ari dira.

Ibaiaz bestaldeko baratze bazterretan eguzkiak hondutako masusta-larrak nabarmentzen dira lotsagabeki, arantzen babesean uda bero oparoan harro.

Ibai ertzean, sustrairik gabeko landareak ere bere emaitza emango lukeen lur gozoan, uda hondarreko uzta jasotzen ari da gizasemea. Baratze azken fruituak dira, lurrak gizakiari esker onez eskaintzen dion altxorra, bion arteko hartu-eman estua, naturala.

Gertuko eremuan, berriz, sagar gorriak pilatzen dira. Batzuek, zuhaitzetan, tinko eusten diote oraindik adaxkari. Beste batzuk, fruitu helduaren usaina darion sagastiko belazean, han hemenka barreiatuta. Denak, baserriko atarian dagoen kupela zaharra sagar muztio gozoz betetzeko erabiliak izango direnak.

Iluntasuna abailtzen da bailarako basoetan. Pagolizar hostoak arre kolorez jausiz, zuhaitzak biluzten doaz zorua orbelez jantziz. Udazkena da, eta, ez beste ezer.

Zorion agurrak



Unax

Zorionak, pottoko! Jadanik 3 urte zoragarri zurekin! Oier, amaxo eta aitaxo.



Helena

Helena maitia, ZORIONAK eta 30 muxu Kuadrillatikoren partetik.



Maren

Zorionak zure urtebetetze egunean Nahia, amaxo eta aitaxoren partetik.



Jon

Zorionak!!!!!! 13 urte!!! Ondo pasa zure egunean. Muxu asko zure familiaren partetik.



Nahia eta Pili

Zorionak!!!!!! Zuetaz ahaztuak ginela uste al zenuten. Muxu pila Ttakuneko lankideen partetik.



Iratxe

Zorionak sorgiña! Urteak aurrera doazela, espabila! Muxu erraldoi bat kuadrilan partetik!



Maialen

Zorionak polita! Lau muxu potolo aitaxo, amaxo eta Nahiaren partetik.

Zorion agurrak bidaltzeko 943 36 68 58, txintxarri@txintxarri.info edo www.txintxarri.info web orrialdeko formularioa erabili dezakezue.

Azoka txikia

Eskaintza inmobiliarioak

- Etxebizitza alokatzen da Sasoeta auzoan. 2 logela ditu eta berogailu zentrala. Abala eskatzen da. Telefonoa: 649526766
- 116m2-ko aparteko pisua salgai, kultur etxearen parean. Guztiz berrituta dago. 3 gela, 2 komun, jantzigela, egongela eta sukalde ederra. Gela guztiek kalera ematen dute, lñigo de Loyola kalera eta Geltoki kalera. PREZIO BERRIA. 639 738 413.
- Garajeko marra bat alokatzen da, Hipodromo etorbidean. 688639297

Lan-eskariak

- Neska gazte euskalduna, prest dago zenbait lan burutzeko: etxeko lanak, ume zaintza, klase partikularrak,... Telf: 685799364
- Mutila eskaintzen da edozein lan egiteko,

- taberna edo jatetxe bateko sukaldetan, margo-lanak egiteko... Harremanetarako, 648 637 732.
- Emakumea eskaintzen da interna moduan edo orduka etxeko lanak, garbiketa edo helduak zaintzeko. Esperientzia eta paperak dauzka. Harremanetarako, 619 803 199.
- Haurrak edo pertsona adinduak zaindu edo etxeko lanak egiteko prest nago orduka edo interna moduan. Harremanetarako, 610 887 845.
- 37 urteko emakumea lanerako prest. Arduratsua, langilea... Lan egingo nuke denda, kafe-tegi, okindegia, lantegia... "manipulador de alimentos" karnetakin, eta autoa ere bai. 666539284.
- Lan bila nabil. Etxeak garbitu, zaharrak edo haurrak zainduko nituzke orduka. Harremanetarako, 943 404 015 edo 606 661 048 zenbakira deitu, Doris.

Heriotzak Jaiotzak

Heriotzak

• Martin Grijalvo del Diego, irailaren 20an, 71 urte zituela.



Farmazia Goardiak

EGUNEKOAK: 09:00-22:00

Ostirala, 21	Orue, Jaizkibel plaza 2	943 362652
Larunbata, 22	Rodriguez, Kale Nagusia 42 atzea	943 361774
Igandea, 23	Rodriguez, Kale Nagusia 42 atzea	943 361774
Astelehena, 24	De Miguel, Kale Nagusia 32	943 371151
Asteartea, 25	Rodriguez, Kale Nagusia 42 atzea	943 361774
Asteazkena, 26	Gil, Kale Nagusia 24	943 361529
Osteguna, 27	Acha-Orbea, Hipodromo et. 6	943 363549

GAUEKOAK: 22:00-09:00, egunero

Chucla, Kardaberaz 48
Hernani, Tel.: 943 551793

Larrialdi telefonoak

Osasun Zentroa	943 007960
DYA	943 464622
Gurutze Gorria	943 363953
Udalzainak	943 362442
Ertzaintza	943 288888
SOS Deiak	112

Txintxarri diruz laguntzen duten erakundeak



Lasarte-Oriako Udala
Euskara Batzordea



EUSKO JAURLARITZA
KULTURA SAILA



GFAko Kultura eta Euskara Departamendua

UDALA

Laguntza soziala indartu egin duela argitu du Udalak

Komunikabideetan ateratako informazioak gezurrezkoak eta herritarrak engainatzeko saioa dira Gorka Lizarragaren ustez

Urte beteetan laguntza soziala indartu egin dutela jakinarazi zuen atzo Gorka Lizarraga, Lasarte-Oriako Zerbitzu Sozialen saileko arduradunak, laguntza horiek murriztu egin direla esanaz argitaratu diren informazioei erantzunez eta zenbait adibide jarri zituen hori frogatzeko.



Gizarte Zerbitzuan urte beteetan egindako aldaketak jakinarazi ditu Gorka Lizarragak.

Herritarrak engainatzeko saiaketa "zikin eta zekena" izan da Gorka Lizarragaren ustez, komunikabideetan Udalaren laguntzak murriztuko direla esatea. Bilduko zinegotziak argitu zuenez, Udalak laguntza soziala indartu egin du eta horren adibide argiena zerbitzuaren 2012ko aurrekontua %6,54 handitzea da. Gainera, Eusko Jaurlaritzaren laguntza jasotzeko baldintzak estutu direnez, beharra dutenentzako laguntzak 10.000 eurotik 60.000ra handitu ditu Udalak.

Herritarren aurrean argitu zuen PSE-EEk 25 urtetan izan duen funtzionamendu, jokabide eta jarrera erabat aldatuko dutela "beldurrik gabe", baina

ez dituztela gizarte Zerbitzuak murriztuko, indartu baizik.

Zerbitzuak indartzen

Bere lehen urtean egindako lanaren zenbait adibide jarri zituen Lizarragak esandakoa frogatzeko: Zerbitzu Sozialen aurrekontua %6,54 handitzea, Udalak beharrezko direnei ematen dieten laguntza ekonomikoak 10.000tik 60.000ra handitzea, etxe komunitarioetan bizi direnei errenta ehuneko 20 handitzea eta etxebizitzetan hobekuntzak egitea, besteak beste.

Bestalde, psikologo bat kontratatuko du Udalak fami-

liei laguntza edukitako eta soziala emateko, eta zerbitzuko langileen egonkortasuna bultzatuko da beste bi funtzionario kontratatuz.

Zerbitzu Sozialen Sailean funtzionamendua "errotik" aldatu da, Gorka Lizarragak kargua hartu dutenetik, ardurara, PSE-EEko konfiantzazko kargu batek izatetik funtzionario batek izatera pasa da. Lizarragak argitu zuenez, bere lana epe luzera dauden helburuak eta xedeak zein zerbitzu berriak finkatzeko ikerketak edo estudioak egitea eta batez ere, langileek egindako lanak ikuskatzea da.

30 aparkaleku proposatu ditu PSE-EEk

PSE-EEko Jesus Zaballos eta Martin Moreno zinegotziak prentsaurrekoa eman zuten Uistin kalean, bertan 30 aparkaleku berri sortzeko proposamenaren berri emateko.

Zinegotziak azaldu zutenenez, Uistin kaleko eskuin aldeko espaloia estututa, lekua lortuko litzateke aparkalekuak zeharka jartzeko. Horrela bi aldeetan zeharka aparkatzeko aukera izango litzateke eta 30 aparkaleku berri.

Uistin kalean 30 aparkaleku berri sortzeaz gain, Okendoko lurrazpiko aparkalekuak irekitzeko eskaera luzatu zuten. Martin Morenok eta Jesus Zaballosek adierazi zutenenez, aparkaleku eskasia da Lasarte-Oriaren arazo nagusia eta "konponbideak bilatu behar ditu Udalak".

Azken plenoan Okendoko parking-a lehenbailehen ireki



Jesus Zaballos eta Martin Moreno Uistin kalean proposamena aurkezten.

dadin beharrezko gestioak egiteko eskatu zuen PSE-EEk. Hauen ustez, abian jartzeko tramiteak hasteko ez da enpresak lanak bukatzea itxaron behar: "Horrek irekieraren atzerapena ekarriko luke".

PSE-EEk gogoratu du, agintean egon zenean saiatu zela aparkalekuaren arazoa konponetzean, lurrazpiko parking-ak eginez esaterako Zumaburu, Andatza edo Michelinen herri-

tarrei eskaintzeko, Loidibarrenen saltzeko edo Okendon alokatzeko. "Baina beharrezkoa da plaza berriak sortzeko kanpoan ere trafiko eta aparkalekuaren azterketa egitea".

Aurreko legealdian Atsokar eta Zelaialden egindako trafiko aldaketak ere aipatu zituzten. Trafikoa berrantolatuz eta norabide bakarrak jarritz 150 autorentzat aparkaleku lortu zela gogoratu zuten.



AZOKA

Gaurtik Erdi Aroko azoka Okendon

Musika, antzerkia eta produktu ezberdinetako postuak izango dira gaurtik igandera bitartean Okendo plaza hartuko duen Erdi Aroko azokan. Gaur 18:30ean, musikariak eta Lasarte-Oriako gorteko bufoiak erdiguneko kaleetatik barrena kalejira bat egingo dute herritarrek azokaren irekieraren berri izan dezaten.

Egun hauetan artisauen produktuak erakusgai izango dira Okendon eta hauetako batzuk lanean ikusteko aukera ere izango da. Senda belarrak, jakiak, bitxiak... denetarik ongongo da azokan. Salgai izango diren produktu aukera zabalaz gain, musika eta hainbat antzerki emanaldiz gozatzeko aukera izango dute azokara gerturatzen diren herritarrek. Hauetan Erdi Aroko hainbat pertsonaia izango dira protagonistak. Asteburuan zehar haur txoko eta haurtzaindegi zerbitzua izango da ere, goizez 11:00etatik 14:00etara eta arratsaldez 17:00etatik 21:00etara.

ZAHARREN OMENALDIA

Ekintzetako izen emateak

Zaharren omenaldian zehar egingo diren hainbat ekintzetan izena emateko azken eguna bihar izango da. Ekintza gehienetan parte hartzea itxita dago orain egun batzuk baina musean izena emateko azken aukera bihar, larunbatean izango da.

Aldi berean, gaur izango da azken aukera ere bazkarirako txartelak itzultzeko. Data hau pasata bazkariko txartela itzuli nahi dutenei ez zaie hau hartuko.

GIZARTEA

Langabetuak euren eskubideen alde

Asteazkena arratsaldean hainbat herritar langabetu bildu ziren Okendo plazan Lasarte-Oriako kaleetan egun hauetan agertu ziren elkarretaratze deia erantzunez. Deialdi honen asmoa, Lasarte-Oriako langabeen plataforma sortzea da.

Bileran azaldu zutenenez, langabeak edo lan-egoera ezegonkorrean dauden herritarrak bildu nahi dira, alderdi politikoak, sindikatuak eta enpresak alde batera utzita.

Honela, herritar guztiak batuta erakundeekin bildu eta hitz egiteko aukera izango dutela aipatu zuten. "Pertsona batek ezin du ezer egin, baina guztiok elkarrekin indar gehiago izan dezakegu."

Era berean, plataforma antolatu, honen helburuak finkatu eta ekintzak gauzatzeko ideiak behar direla azpimarratu zuten lehen bilera honetan. Puntu hauek lantzeko hurrengo hitzordua irailaren 26an, azteazkena goizeko 10:00etan Okendo plazan izango da.



Dantza Eskola Erketz-en harrobia

Irailaren 24a eta 25a Erketz EDT-ren Dantza Eskolan izen-emateko azken egunak dira

Erketz Euskal Dantza taldeak ia 50 urte ditu. Bere iraupenaren arrazoietako bat harrobia landu eta ondo zaintzen duela da. Taldea sortu zenetik beti egon da dantzari txiki talde bat. Hala ere, 1991. urtean hasi zen martxan Dantza Eskola, Erketz txiki bezala ezaguna dena. Herritar ugari izan da Dantza Eskolan eta horietako batzuk Erketz EDT-n daude egun lanean.

Nerea EIZAGIRRE

Erketz Euskal Dantza taldeko kideak eta lagunak lanean hasi dira hurrengo ikasturtean dituzten emaldiak prestatzeko. Baina helduen taldeez gain, urtero legez, elkartearen Dantza Eskolak urrian irekiko ditu atea. Honetan, 5 eta 14 urte bitarteko haur eta gaztetxoekin lan egiten dute eta herriko euskal dantza harrobia sendotzea du helburu.

Iaz dantza eskolan ibilitako lau gaztetxo eta eskola laguntzaileekin bildu gara Erketz EDT-k Zumaburuko ikastetxean duen lokalean haien esperientzia ezagutzeko.

Euskal dantzak

Lokalera sartu eta hasi dira irriak. Dantza eskolako

kideak diren Nerea, Leire, Maria eta Xabier, sei eta hamar urte bitarteko gaztetxoak dira nire galderak erantzuten lehenak.

Dantzan zein adinetan hasi ziren galdetzean Nerea, Leire, Maria eta Xabierrek bost urterekin hasi zirela adierazi digute.

Euskal dantzak ikasi nahi zituztela aipatzen dute, baina esate baterako, dantzaren munduan kuriositatez sartu zela aipatu du Mariak.

Honela, makil dantza, fandango, arin-arin eta "dantza asko" ikasten dutela adierazi dute gaztetxoek.

Hauek ikasten eta dantzatzeko ongi pasatzen dutela ere azpimarratu nahi izan dute.

Irteerak

Baina ez da gutzia euskal



Erketz EDT-ren Dantza Eskolako gaztetxoak eta laguntzaileek herriko gazteak animatzen dituzte dantza egitera.

dantzak ikastea bakarrik, dantza eskolako kideek ikasitako dantzak hainbat emanditan erakusteko aukera izaten dute, "hemen Dantzari-txiki egunean dantzatu genuen" eta Erketz dantza taldeak San Pedroetan eskaini zuen emandian ere izan ziren.

Beste herrietara ere egiten dituzte irteerak eta iaz Sestao edo Lesakan egon zirela aipa-

tu dute gaztetxoek. "Era hone-tara, beste herrietako dantzari-ak ezagutzen ditugu".

Azkenik, denek dantzatzeko gustuko dutela aipatu eta aurrean eskolan jarraitzeko asmoa ere agertu dute.

Dantza eskolatik Erketzera

Txikiekin hitz egin ondoren, Dantza eskolako laguntzaile-lean txanda da.

Axier, Kristina, Aitziber eta Nahia dira. Hiruk, Axier, Kristina eta Aitziberrek bere lehen urratsak eman zituzten Dantza eskolan eta egun Erketz dantza taldeko kideak dira. "Iaz hasi ginen helduen taldean lanean. Hala ere, dantza eskolan ginenean, askotan laguntza bezala joaten ginen Erketz-en emandietara."

Haintzat dantza denbora pasa da, "astean bi ordu dira ez du asko kentzen."

Lau gazte hauek Nagore Perez eta Ruben Arranz eskolako arduradunen esanetara daude. "Nagore eta Rubenek eskolako erritmoa ezartzen dute eta guk laguntzaile lana egiten dugu. Esate baterako, haur batek pausak ikasteko arazoak baditu, guk aparte

hartu eta berarekin egiten dugu lan".

Honela, haurrekin "hahiko ongi moldatzen" direla aipatu dute. "Gu ez gara oso zahar-rrak eta askotan bromatan ibiltzen gara haiekin," onartu dute.

Gustura daude lan hone-tan eta arduradunek aipatu digutenez, hurrengo urtean begirale izateko prestatzen ari dira, "lehenik nola erakutsi ikasi behar dute".

Izen-ematea

Gauzak honela, euskal dantzak ikasi nahi dituzten gazte-txoek irailaren 24 eta 25ean 18:30etik 20:00etara Zumaburuko eskolako lokalean izena eman ahalko dute Dantza eskolan.

Erketzeko kideek aipatu digutenez, oraindik ez dago entsegu eguna eta ordua zehaztuta, baina "astelehentik ostegunera izango da".

Honetaz gain, helduen taldean parte hartu nahi dutenek ostegunetan 20:00etatik 22:00etara dute aukera.

Erketz EDT-ko lagunak taldeak astearteetan 19:00etatik 22:00etara dute entsegu.



Lasarte-Orian Dantzari Txiki eguna ospatzen da beste herrien antzera. Honela, beste herrietako haurrak ezagutu ahal dituzte.

ADURIZ DE LASARTE S.A

Solomoa baratxuritan

Odolkia- Solomo ontzutua Etxeko txorizoa

Tripakiak- Saltxitxak Basurde burua

Txistorra Baserri pateka

BERTAKO FABRIKAZIOA

Loidi Barren kalea 3 • Tel.: 943 361 278 - 943 361 655 - 943 362 451

Lasarte-Oria

Foto depilazioa argi pultsatuarekin

- Era ezberdinetako depilazioak
- Aurpegiko tratamenduak
- Gorputzeko tratamenduak
- Makillajeak
- Beste hainbat zerbitzu

Krisi garaian, guk ere esfortzua egin nahi izan dugu, gure prezioetan!

MAITE

ESTETIKAKO ARETOA

Uistin Kalea 1/g • Tel.: 943 370845 • Lasarte-Oria

Benedika mendia ezagutzeko 26 aukera



► Maratoian zehar Lasarte-Oriako eremuaren baitan kokatuta dagoen mendi bakarrera igotzeko aukera izango da ► Ordu eta erdiko txangoa izango da eta 26 txanda aurreikusi dira

Euskararen Maratoian zehar Benedika mendira egingo dira irteerak. Aurreko edizioan Teresategira egin ziren txangoak eta aurten Ostadarreko mendi taldeak Benedika ezezaguna berreskuratu nahi izan du euskararen jaialdirako. Lehen txandak buzoia jarriko du mendi tontorrean eta gainontzekotan hainbat ezusteko ere izango dira. Benedika Lasarte-Oriako behatoki ezin hobea da. Animatu eta izena eman!

Gezurra dirudien arren, oraindik Lasarte-Orian badira txoko ezezagunak. Ezezagunak baino, herriko paisaiari erreparatuta inork ikusten edo garrantzirik ematen ez dien txoko horietakoak. Inork eza gutzen al du Benedika? Izena berez oraindik arrotzagoa egingo zaie askori baina Benedika Lasarte-Oriako eremuan kokatuta dagoen mendi bakarra da.

Ezezagutza horrekin amaitu nahi da eta mendi hau behar bezala ezagutzera eman nahi da lasarteoriatarren artean Euskararen Maratoian. Hain juxtu arrazoi hau tarteko Ostadarreko mendi taldeak Euskararen Maratoian baitan antolatuta nahi izan ditu Benedikara igotzeko eta behar bezala ezagutzera eman gurean dagoen txoko polit horietako bat.

Lasarteoriatarra

Buruntzaren itzaletan bizi izan da beti Benedika eta garai batean behintzat bazen Buruntzara igotzeko honetatik pasatzen zen ibilbidea. Mendizale askok hau igotzen zuten Buruntzarako euren ibilbidean baina egun guztiz ahaztuta dago. Benedikak badu inguruko mendiek ez duten ezaugarri garrantzitsu bat; Lasarte-Oriako eremuaren baitan kokatuta dagoen mendi bakarra da.

Izan ere, Buruntza bera Urnieta eta Andoainaren eremutan kokatzen da eta Teresategiren magala ere Donostiako eremuaren barruan dago.

Benedika mendiak 223m-ko altuera du eta Zapal base-

rriaren ondoan kokatzen da. Benedika izenari dagokionez, herriko toponimia berreskuratzeko ahaleginean kartografiatzen agertzen den jatorrizko izena da. Izen hauek zaindu eta bultzatzea du helburu herriko mendizale taldeak ere. Honen jatorria ordea, askoren jakin mina piztu arren, ezin zehazki jakin.

Ehiztarien mendia

Hala ere, gehienentzat ezezaguna izan arren badira Benedika ondo ezagutzen dutenak eta horiek herriko ehiztariak dira. Bertan kokatzen dira herrian oraindik geratzen diren ehiza postu bakanak. Hala ere ehizarako gunea izateaz gain, herriko behatoki ezin hobea da eta merezi du hau ezagutu eta eskaintzen duen paisaiatzat gozatzea.

Bereziki politikak izango dira gauzez egingo diren txandak. Hauetara noski antolakuntzatik linternak eramatea eskatzen da eta ekintza honetan parte hartuko duten guztiei, mendiko zapata aproposak ekartzea eskatzen zaie. Nahiz eta mendi zaila ez izan, erosotasuna beharrezkoa da halako txangoa behar bezala egin ahal izateko.

Bide erraza

Mendia izaki, honen igotzeri erreparatu behar zaio. Benedikara igotzeko bidea erraza da azpimarratu moduan.

Gehiena bide asfaltatuetik egiten da azken zatia izan ezik eta joan etorria, lasai ibilita, ordu eta erdian egiteko modukoa da.

Paseo polita eta guztiz aproposa mendian ibiltzeko



Benedika mendia Azkortetik ikusita. Azpiko irudian Buruntzaren azpian geratzen den tontorra da.

ohiturarik ez dutenentzat zein haurrentzat.

Lehen igoera, 8:30ean izango da larunbatean, urriak 20, eta Ostadarreko kideek egingo dute tontorrean buzoia jartzeko. Ondoren, beste 25 txanda daude aurreikusiak.

Maratoian zehar txangoak Okendotik abiatuko dira eta Kotxeras inguruan Oztaran eskola aldera hartuko da espaloia. Behin hara iritsita, eskolaren atzetik ateratzen den bidexka bat jarraituta Garratzako aldapan gora egin eta azken bidexka batek zuzenean eramango ditu mendizaleak tontorreraino.

Egun Benedikara igotzeko bidea ez dago behar bezala adierazita eta Maratoiko txango hauek ere horretarako baliatuko dira. B baten bidez bideguruzteetan hartu beharrek bidea markatuko da inor gal ez dadin. Marka hauek ez dira Maratoian osten kenduko, bertan utziko dira herritarrak mendixka hau



ezagutzeko aukera ere Euskararen Maratoian ondoren izan dezaten.

Izena ematea

Benedika da Maratoiko ekintza nagusietako bat. www.euskararenmaratoia.com helbidean sartu direnek ikusi moduan, Udaletxe berrira egingo diren bisita gidatuekin batera.

Benedikara igotzeko, txandak aukeratu daitezke dagokieneko. Izena emateko, aurreratu genuen moduan aurten hiru modu daude, online egin daiteke www.euskararenmaratoia.com helbidean sartuta, Ttakuneko egoitzaik pasata edo 943 376 858 zenbakira deituta. Animatu eta izena eman Lasarte-Oriako talaia hau ezagutzeko!



LABURRAK.-



Raul Gomez, ezkeretik hasita bigarrena, eta David Martin Baxurde krosekoko podiumean.

Martin eta Gomez lasarteoriatarak Baxurde krosekoko podiumean

Aurreko igandean, irailaren 16an, Usurbilgo Baxurde kroka izan zen. David Martin lasarteoriatarra izan zen irabazlea, 35:11 denbora eginaz. Ez zen Martin lehenengo postuetan egon zen herritar bakarra izan, Raul Gomezek hirugarren postua eskuratu zuen, 36:10. denbora egin ostean.

300 bat lasterkari izan ziren Usurbilgo Baxurde Txiki Triatlói Taldeak antolatatu duen lasterketako irteeran eta horien artean Lasarte-Oriako hainbat lasterkari izan ziren, hauek dira haien denborak: Jose Luis Delgado, 38:30; Francisco Borja Romero, 40:03; Jon Altuna, 41:54; Francisco Javier Perez, 42:12; Alex Altuna, 42:50; Mikel Martinez, 44:09; Luis Enrique Gallego, 45:45; Asier Gorostegi, 46:07; Jon Pielago, 46:59; Mikel Calvo, 48:18; Javier Olazagoitia, 49:23; Zigor Iriondo, 50:17; Xabier Otaegi, 50:42; Aitor Ezkurdia, 51:10; Eduardo Rivas, 51:43; Gorka Alvarez, 52:29; Zigor Gallardo, 53:21 eta Peio Fadrique, 56:59.

Lasarte-Oria Bai! kroserako izena ematea internetez zabalik

Ostadar Saiarre Kirol Taldea XVII.Lasarte-Oria Bai! Kros Herrikoa eta XII.Kros Txikia antolatzen ari da urriaren 28rako.

Elkarteak jakitera eman duenez, dagoeneko helduen krosean parte hartzeko izen-ematea zabaldu da internetez. Inskripzioa urriaren 24ra arte egin ahal izango da kirolprobak.com helbidetan.

Bulegoko izen ematea berriz, urriaren 15ean zabalduko da guztientzat, bai txiki eta bai helduentzat.

Izen-emate arrunta 12 euro gehi txiparen 5 eurotako fiantza da, Ostadarreko bazkideek 8 euro gehi 5 eurotako fiantza ordaindu beharko dute; txip horia dutenek berriz, 11 euro eta hauek bazkideak badira 8euro.

OHARRAK.-

Saskibaloian jokatzeko lagunak

Saskibaloian jokatzeko lagunak bilatzen dira, neska zein mutilak. Kiroldegian asteartean 20:00ak eta 22:00ak bitartean jokatzeko izango litzateke. Interesa dutenek 676 026 424 telefono zenbakira dei dezatela.

KIROL AGENDA.-

FUTBOLA

Larunbata 22

Zarkumendegi, Astigarraga, 11:00etan

Astigarragako Mundarro-Ostadar

I. Kadetea

Zubieta, 15:00etan

Texas Lasarteerra-Hernani I. Kadetea

Zubieta, 16:00etan

Ostadar-Bergara

Erregional Ohorezko maila

Ubitarte, Andoain, 19:15ean

Euskalduna-Ostadar I. Erregionala

Igandea 23

Harane, Usurbil, 10:30ean

Texas Lasarteerra-Segura

I. Erregionala

Berio, Donostia, 10:30ean

Antigua Luberrri-Ostadar

I. Jubenila

Harane, Usurbil, 12:15ean

Ostadar-Gernika

Kadeteen Ohorezko maila, Euskal Liga

Errotazar, Deba, 16:30ean

Amaikak Bat-Ostadar

Jubenilen Ohorezko maila

ARETO-FUTBOLA

Larunbata 22

Eskolapioak, Tolosa, 16:30ean

Tolosala Hirukide -Aldaz H.K.

III. maila

PILOTA

Ostirala 21

Madalensoro, Oiartzun, 19:15ean

Oiarpe2-Intza

Eskuz binaka, I. jubenila



Larunbata 22

Michelingo pilotalekua, 16:00etan

Intza-Azkoitia

Eskuz binaka, II. jubenila

Michelingo pilotalekua, 16:00etan

Intza I-Intza2

Eskuz banaka, jubenila

Igandea 23

Astigarraga, 10:30ean

Mundarro-Intza

Eskuz binaka, II. kadetea

DUATLOIA

Larunbata 22

Zubieta, 16:00etan

Herriko hainbat atletak Zubietan antolatatu den Mendi duatloieko txapelketako bigarren proban parte hartuko dute.

TXIRRINDULARITZA

Larunbata 22

Lazkao, 16:00etan

Buruntzazpi eskolako eta herriko junior mailako txirrindulariak Udazkeneko Kriteriumean parte hartuko dute.

Igandea 23

Biyak Bat, 08:30ean

Ostadar SKT-ko zikloturistek irteera dute Elkarno-Iraetara.



ARETO-FUTBOLA.-

Aldaz H.K. taldeak larunbatean hasiko du denboraldia

Oscar Garciaren taldeak mailari eustea du helburu aurten ere

Nazional mailako Aldaz H.K. taldeak bihar, Tolosan hasiera emango dio 2012-2013 denboraldiari. Laugarren urtea du maila honetan eta iaz seigarren postuan amaitu zuen. Nazional mailan mantentzea du helburu herriko taldeak berriro ere, baina ez da erraza izango.

Nerea EIZAGIRRE

Aldaz H.K. taldeak hiru aste daramatza lanean eta asteburu honetan, Nazional mailako taldeen aretoetan baloak biraka hasiko dira.

Oscar Garcia taldeko entrenatzaileak azaldu digunez, aurrendenboraldi "intentsoa" izan du Aldaz H.K. taldeak. "Asteburuetan lagunartekoak jokatu ditugu, gure mailako talde batzuekin, hala nola, Euskalduna. Lehengo asteburuan, esate baterako, Intxaurren izan zen torneoan hirugarren geratu ginen. Eta asteazkenean Villabonan beste lagunarteko bat izan genuen."

Partida hauetan guztien santsazio onak izan dituela aipatu du Oscarrek.

Izan ere, taldean ez da aldaketa handirik izan. Baja batzuk izan eta lau jokalar berri dituela azaldu digu. "Arkaitz Merino, Daniel Bidaurreta eta Gorka Esteban



Aldaz H.K. taldeko jokalariek mailari eusteko gogor arituko dira aurten lanean.

dira horietako hiru. Maila honetako taldeetatik datoz, Inter-Intxaurren eta Ceramicas Nogalez-Zarautz. Eta laugarrena, Iñigo Jaka herritarra dugu. Iaz lesio handia izan zuen eta dagoeneko jokatzeko moduan dago. Jokalari hauekin taldea orekatu dugu".

Mailari eutsi

Hirugarren urtea du Aldaz taldeak maila honetan. Nahiz eta aurreko urteetan zortzigarren izan eta iaz seigarren postuan amaitu, argi dute helburua mailari eustea dela.

Taldearen eta jokalarien konprometua handia dela aipatu digu, baina helburua lortzea zaila izango dela argi du Aldazeko entrenatzaileak.

"Taldeen artean bi maila daudela esan daiteke. A mailara igotzeko aukera zuten

lehen hiru taldeek, Ibarra, Sestao eta Aurrera de Vitoria, eta Bilbo daude batetik eta beste zazpi edo zortzi talde gaude beste multzo batean," azaldu digu.

Lehen urratsa Tolosan

Bihar Tolosalaren aurka denboraldiko lehen partida jokatuko dute Oscar Garciaren mutilek.

Partida serioa eta zaila izango dela aipatu digu entrenatzaileak. "Aurten igo den taldea da. Eta jokatzeko ikus-tean sentsazio onak eman dizkirate. Ongi jokatzeko dute eta oso azkarrak dira"

Tolosaren lehen partida izatea eta etxean jokatzeko arerioaren aldeko puntuak direla adierazi digu Aldazeko arduradunak, "guztia eman eta gure esperientzia atera behar dugu partida irabazteko."

Agenda

Ostirala 21-Igandea 23, Okendo plaza



Erdi Arora bidai

Asteburu honetan Erdi Aroan murgilduko da Okendo plaza. Gaur 18:30ean irekiko ditu ateak Erdi aroko azokak. Hirugaren urtez, hainbat artisauen lana ikusteko aukera izango da plazan jarriko diren postuetan. Produktu naturalak eta jaki gozoak ere izango dira. Eta Erdi Aroan oinarritutako musika eta antzerki emanaldietaz gozatu ahaliko dute herritarrek.

koa egingo da. Kontseiluak sustatutako ekimena.

Hernani

Jaia

KARABEL

Ostirala 22

Karabelen auzo eguna ospatuko dute.

Bestelakoa

ERDIALDEA

Ostirala 21-23

Mugikortasun Astea ospatuko dute. Haur eta nagusien entretenimendurako aktibitate zirkuitoak egingo dira.

Erakusketa

BITERI KULTUR ETXEA

Irailaren 28tik-Urriaren 11era

Argazki Rally digitalaren erakusketa ikusgai izango da.

Lasarte-Oria

Musika

ABEND KAFE-ANTZOKIA

Ostirala 21, 00:00etan

LasarTEK Electronic Gaua-n Sergio Cruz, Mora GS eta Daniel Knob dj-en emanaldia entzungai izango da.

elkartek Udalaren laguntzaz V. Stock eta Saldoen Azoka antolatuko du.

Erakusketa

JALGI KAFE-ANTZOKIA

Iraila osoa

Jon Galdos artista irundarraren Amalurra margoen erakusketa eta hainbat olerki ikusgai dira.



Azoka

OKENDO PLAZA

Larunbata 29-Igandea 30

Beste urte batez, herriko Aterpea

Bestelakoa

EUSKOTREN

Larunbata 22, 17:30ean

Euskaraz bizi nahi dut! martxa egingo da herriko kaleetan zehar. Kontseiluak herriko hainbat elkarteekin antolatutako ekimena da.

Astigarraga

Bestelakoa

ERDIALDEA

Larunbata 22, 16:30ean

Euskaraz bizi nahi dut! lasterketa herri-

Usurbil

Ikastaroa

AGERIALDE

Larunbata 22, 09:30-14:00

Ogia egiteko ikastaroa antolatuta du Usurbiltzenek. Izena ematea, 608 566 683 (Beñat).

Bestelakoa

OIARDO KIROLDEGIA

Larunbata 22, 16:30ean

Euskaraz bizi nahi dut! lasterketa herrikoa egingo da.

Herritarren txokoa

Maria Auxiliadoraren ohorezko meza

Zumaburuko Arantzazuko Amaren elizan Maria Auxiliadoraren meza ospatuko da irailaren 24an, astelehena, arratsaldeko 17:00etan.

Odola ateratzea

Hileroko azken astelehenero bezala, odol ateratzeak egingo dituzte Osasun Zentroan irailaren 24an, arratsaldeko 17:30etik 21:00etara. Anima zaitzete, odola ordezkazena da eta odol falta dagok!

Herriraren elkarretaratzea

Hileko azken ostiralero bezala, irailaren 28an Lasarte-Oriako Herrira mugimenduak kontzentrazioa egingo du 20:00etan Udaletxearen aurrean eta deialdia luzatu nahi die herritar gutxi parte hartu dezaten.

Errioxara egun pasa

1962an jaiotako lasarteoriarrentzat Errioxara egun pasa antolatuta dute, azaroaren 10erako, larunbata.

Parte hartu nahi dutenek, edo informazio gehiago jasotzeko, iraila-

ren 28a baino lehen jarri harremanetan antolatzaileekin: Beatriz, 646 274 377 edo Rexu 659 950 363.

Galdutako gauzak

Udaltzainen bulegoan gauza hauek daude jasota, lau betaurreko graduatuak, eguzkitako betaurrekoak, hiru mugikor, txandaleko jaka bat eta txirrinda bat.

Gauza hauen jabeak direla egiaztatzen duten herritarrek, hilabeteko epean jaso behar dituzte.

Horietakoren bat ikuskatzeko interesaturik dauden pertsona gutxiei eskatzen zaie Udaltzainen Bulegora hurbil daitezela, 09:00etatik 13:00etara.

Alboka abesbatza martxan

Alboka Abesbatzak jakin arazten du, 2012-2013 ikasturteari hasiera eman diola.

Era berean, abesteko interesa duen orori Zumaburuko Arantzazuko Amaren eliza azpiko lokalera, astelehena edo ostegunetan 20:00etatik 21:00etara, hurbiltzeko gonbita egiten die.

Hemeroteka

Duela 1023 ale



1994ko irailen ikasturte berriari buruzko erreportajea idatzi zen TXINTXARRI aldizkarian. 1994-1995 ikasturtean, Lasarte-Oriako Garaikoetxea, Sasoeta, Landaberri, Oztaran eta Zumaburu ikastetxeetan ikasten zuten neska-mutilen %75a OHOn zegoen. Ereduari dagokionez, ikasleen gehiengo B eta D eredu matrikulatua zegoela aipatzen da testuan eta A ereduak beharakada handia izan zuela azpimarratzen da.

Era berean, gurasoek bere gain hartu beharreko gastuak ere aipatzen dira: arropa, liburuak... Testuan aipatzen den ikerketa baten arabera, hirugarren mailako ikasle baten gurasoek 50.000 pezeta gastatu zituzten eta zazpigarren mailako haurra zutenek, ordea, 58.000 pezeta.

Honekin batera, liburu saltzaileen haserre adierazten zuen zatidura ere argitaratu zen. Izan ere, ikastetxeetako Gurasoen elkarteek argitaletxe edo liburu banatzaileekin adostuta, ikastetxeetan liburuak saltzen hasi ziren. "Baina garai honetan ere liburu gutxi saltzen baditugu, oso zaila da liburuetan espzializatzea, beraz arkatza, gomak eta bestelako materialeak saldu behar izaten ditugu" zioten orduan herriko liburu saltzaileek.

Zuen oharrak jarri, kexak adierazi edo eskutitzak argitaratzeko: Geltoki kalea, 4 943 366858 txintxarri@txintxarri.info

Euskaraz Bizi nahi dut! festa bihar

Kontseiluaren euskararen aldeko martxa-jaiak 17:30ean abiatuko da Euskotren-etik

Euskal Herriko hainbat herrietan ospatuko den ekimena da larunbatekoa. Lasarte-Orian Erdi Aroko azoka ospatzen denez, lasterketa beharrezko martxa egitea erabaki dute herrietan ekimena bultzatzeaz arduratu diren eragileek. Hau Euskotren-etik abiatuko da 17:30ean eta guztira herriko kaleetan barrena jai giroan 2,5 km-ko ibilbidea burutuko da. Jai giroan egingo den martxa izango dela azpimarratu dute antolatzaileek eta honetan parte hartzeko deia luzatu diete herritarrei.

Maider AZURMENDI

Agerraldia egin zuten asteartean "Euskaraz bizi nahi dut!" lelopean herrian burutuko den martxa-jaiak bultzatu eta babestu duten erakunde eta elkarteetako ordezkariak.

Horrela Taxio Arrizabalaga Lasarte-Oriako udalaren ize-nean, Olatz Urdanpilleta AEK euskaltegiko zuzendaria, Junkal Perez Ttakun kultur elkartetik eta Vivi Valin Ostadar SKT-ko ordezkaria izan ziren ekimena aurkezten. Hautaz gain, herriko eskoletako ordezkariak ere izan ziren euskararen aldeko ekimena babesten.

Normalizazioa helburu

Kontseiluak euskararen nor-

malizazioaren aldarrikapena egiteko antolatutako lasterketa larunbatean ospatuko da Euskal Herriko hainbat herrietan ordu berean. Gehienetan lasterketak burutuko dira baina Lasarte-Orian Erdi Aroko azoka dela eta zailtasunak ikusten ziren eta azkenean martxa bat antolatzea erabaki zuten herriko sustatzaileek Olatz Urdanpilletak AEK euskaltegiko zuzendariak azaldu moduan.

Horrela larunbatean 17:30ean Euskotrenetik abiatuko da martxa eta herriko kaleetan zehar 2,5 km-ko ibilbidea prestatu dela azpimarratu zuen Ostadarreko Vivi Valin-ek. Euskotreneko geltokian hasiko da martxa eta Hipodromo etorbidea hartuta Ola kalea eta Irla plazatik



Asteartean martxaren sustatzaileek agerraldia egin zuten Manuel Lekuonan.

pasako da. Ibaiondo kaletik industrialderaino iritsiko da martxa ondoren kale Nagusia hartu eta erdigunera bueltatzeko. "Ibilbide erraza da, adin guztientzat pentsatuta eta oinez, patinetan, bizikletan nahi bezala egin ahal izango dena".

Jai giroan

Ibilbidean zehar musika, txalapartariak, bertsolariak, batu-

kada izango dira besteak beste "festa giroan burutuko den martxa izango da" azaldu zuen Taxio Arrizabalaga zinegotziak.

Larunbata goizean Oken-don salgai jarriko dira kamisetak eta banderolak "10 eta 7 eurotan izango dira salgai, hauek erosita bukaeran egingo den bost oparienez zozketan parte hartzeko zenbaki bat eskuratu ahal izango da".

Arratsaldean ere martxa hasi aurretik aukera izango da hauek erosteko. Diru hau Kontseiluarentzat izango dela azaldu dute sustatzaileek.

Herriko elkarte eta eskole-tako ordezkari zein udalak martxan parte hartzea animatu nahi dituzte herritarrek "festa giroan euskararen normalizaziorako beste urrats bat egin dezagun euskaraz bizi nahi dugula aldarrikatzeko".

Euskara aukera

Euskaraz ikasteko aukera

2012-2013

Udaleko euskaltegia

- Helbidea: Be ko kalea bidea 1
- Telefonoa: 943 361 621
- e-maila: euskaltegia@lasarte-oria.org
- Matrikulatzeko epea: irailaren 3tik 18ra

Munteri-AEK euskaltegia

- Helbidea: Geltoki kalea 17 - behea
- Telefonoa: 943 372 863
- e-maila: lasarte@ae.org
- Matrikulatzeko epea: irailaren 1etik 30era

Diru-laguntzak

% 40 - % 75

Edozein lasarteoriatarrentzat matrikularen %40 arteko diru-laguntza.

Gurasoentzat, merkatarientzat eta begiraleentzat %75 artekoa.

Informazio gehiago

Udaleko euskarako zerbitzuan:

- Helbidea: Kale Nagusia 22
- Telefonoa: 943 376 184
- e-maila: euskara@lasarte-oria.org

ona eta merkea

